

euskararen berripapera



197

Bikain ziurtagiriak lehenengoz banatu dira

Euskal Autonomia Erkidegoko 30 enpresak jaso dute lehenengo aldiz banatu den *Bikain* ziurtagiria. Alegia, enpresa-munduan eta esparru sozio-ekonomikoan euskararen etengabeko normalizazioa ebaluatzen eta egiaztatzen duen agiria. Ziurtagiria azaroaren 10ean jaso zuten enpresek Bilboko Guggenheim Museoa Eusko Jaurlaritzako lehendakari Juan Jose Ibarretxeren eskutik.



Ziurtagiria jaso duten enpresetako ordezkariak banaketa ekitaldian.

Ziurtagiria jaso duten erakundeek berriaz egindako ebaluazio-prozesu bati ekin behar izan diote. Honako hau ebaluatu da: euskararen presentzia eta erabilera hizkuntza-paisaian eta irudi korporatiboan, kanpo eta barne harremanetan; horrekin batera, hizkuntza-kudeaketarako ezarritako hizkuntza-politika eta baliabideak, besteak beste. Halaber, ebaluazio-txosten bana jaso dute ebaluatutako enpresek beren indarguneak, zer-hobetuak, gomendioak eta puntuazioa azaltzen duena.

Ziurtagiria eskuratu duten 30 enpresen artean, 22 zerbitzu-sektorekoak dira, eta gainontzeko 8ak, industria-alorrekoak. Lurralde-banaketari begiratuta, Gipuzkoan daude enpresa eta entitate horietako 17, Biz-

kaian 11, eta Araban 2. Enpresa horiek jarduera ugari burutzen dituzte eta euren artean honako enpresa- eta entitate-mota hauek daude: hedabideak, makina-erreminta arlokoak, administrazio publikoak, banaketa-enpresak, fundazioak eta elkarteak, osasun-laguntza ematen dutenak, finantza-erakundeak, eraikuntza arlokoak, aholkularitza-enpresak...

Enpresa edo entitate horietako bakoitzak lortu duen puntuazioaren arabera, hiru mailatako *Bikain* ziurtagiriak banatu ziren: oinarrizko maila erakusten duten 7 ziurtagiri, kolore beltzaren bidez identifikaturik; erdiko maila erakusten duten 17 ziurtagiri, zilar kolorearen bidez identifikaturik; eta, azkenik, goiko maila erakusten duten 6 ziurtagiri, urre kolorearen bidez identifikaturik.

Erakundeek orogarria lehendakariaren eskutik jaso zuten. Guztiei eskertu zien egindako lana eta zera nabarmendu zuen: «Hizkuntza-kudeaketa egokia kalitatearen eta berrikuntzaren helburuak mamitzeko egitasmoen giltzarri nagusietako bat da». Eleaniztasuna, kalitatea eta berrikuntza bikaintasunarekin lotu zituen: «Gure enpresek ere ongi dakite eleaniztasunaren kudeaketa egokia kalitatearen eta bikaintasunaren osagai bereiztezina dela». Lehendakariak adierazi zuenez, «euskara eta eleaniztasuna aberastasun dira, eta hala ulertu du euskal enpresak, gaurko ekitaldi honek garbi erakusten duenez» ●

Ziurtagiria jaso duten 30 enpresak: Asociación Goiztiri Elkarte, CAF, IKT S.A., Gaiker- IK4, GKN Driveline Legazpi, MATIA Fundazioko IZA zentroa, Tximela S.A., EDE Fundazioa, Pasaiako Portuko Agintaritza – Autoridad Portuaria de Pasajes, VISESA, Eroski, Maier Koop. E., ARLAN S.A., Asociación ZABALTZEN Elkarte, Gipuzkoa Donostia Kutxa, Danobat

Koop. E., Ekonomisten Euskal Elkargoa, ORKLI S.Coop., IMH - Makina Erremintaren Institutua, ELKARGI E.G.E., Euskaltel S.A., Fagor Electrodomésticos Koop. Elkarte, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritza, Eika Koop. E., Digitalak, Elay Taldea, Bizkaia Irratia, Goiena Komunikazio Zerbitzuak, Gipuzkoako Ikastolen Elkarte, EMUN Koop. E.

HABEk 25. urteurrena ospatu du

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea abian jarri zela mende laurdena da eta hori ospatzeko azaroaren 11n Donostiako Kursalean festa giroan ospatu zuten urteurrena.



Ekitaldian omendutako irakasle eta langileak.

Bertso, musika, antzerki eta dantzaren bidez goxatu zuten ekitaldia. HABEn eta euskaltegietan 25 urte luzez lanean aritutako 246 irakasle eta langile benetako protagonista bihurtu ziren.

Irakasle eta langile horiei omen egiteko asmoz zirenek bete zuten Kursaal aretoa. Horien artean Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Miren Azkarate Kultura sailburua, Patxi Baztarrika HPSko sailburuordea eta Joseba Erkizia HABEko zuzendari nagusia ziren.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea datutan

- ✓ 22-25 urtetan **350.000 pertsona** ibili dira euskaltegietan.
- ✓ Gaur egun **107 euskaltegi** daude: 39 udal euskaltegi, 60 euskaltegi pribatu homologatu eta 8 autoikaskuntza zentro.
- ✓ **1.500 irakasle** daude euskaltegi sarean.
- ✓ Urtero **35.000-40.000 ikasle** ari dira euskaltegietan.
- ✓ Euskaltegiez gain kontuan hartu behar dira: barnetegiak, 60 Euskal Etxekin HABEk hitzartuta dituen euskarako eskolak eta munduko hainbat unibertsitatetan hitzartuta dauden euskarako lektoregoak. Munduan zehar **3.000-4.000 lagun** ari dira euskara ikasten.

Ibilbide luze bezain oparoa

Euskararen geroratzea edo ondorengoetaratzea bermatzeko tresnarik eraginkorrenak dira eskola eta helduen euskalduntze-alfabetatzea. Hori gogoan, euskararen berreskurapenean, euskal irakaskuntzarekin batera, helduen euskalduntze-alfabetatzea izan da ekinbiderik garrantzitsuenak.

Euskalduntzea gure gizarteak duen erronka handienetako bat dela pentsatuz, helduen euskara irakaskuntza egituratzeko asmoz, HABE Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu gisa 1981ean sortu zen eta erakunde autonomo modura, orain duen egiturarekin, 1983an

HABE zifratan (2008)

HABEren aurrekontua: **42.900.000 €**. Horietatik **32.723.600 € diru-laguntzetan** erabiltzen da. Modu honetan hain zuzen ere:

- ✓ Euskaltegi publikoei 10.438.500 €
- ✓ Euskaltegi pribatuei 20.777.100 €
- ✓ Euskal Etxeei 208.000 €
- ✓ Ikasleei 1.300.000 €

hasi zen funtzionatzen. Geroztik, ibilian-ibilian bide luzea bezain oparoa egin du helduen alfabetatze-euskalduntzearen esparruko gainontzeko eragileekin batera. Batetik, helduen alfabetatze-euskalduntzea profesionalizatu egin da. Gaur egun euskaltegietan lanean ari diren profesionalak prestakuntza didaktiko eta akademiko handikoak dira. Bestetik, jarduera bera arautu eta homologatu egin da. HABEk Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua dauka, euskaltegi guztiek betetzekoa.

Etorkizuneko erronkak

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2005-2009 egitasmoan, helduen alfabetatze-euskalduntzeari dagokionez, besteak beste, honako jardunbide nagusi hauek aipatzen dira:

- Ikas-prozesuaren eraginkortasuna bermatzea eta kalitatea hobetzen jarraitzea.
- Gizartearen eta ikasleen beharretara egokitutako irakaskuntza eskaintza (eskaintza orokorra nahiz gizartearen behar espezifikoetara berariaz egokituta) lantzea.
- Euskaltegi publiko eta kontzertatuen jarduna sendotzea.
- Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikularen azpimailak definitzea.
- Ikasmaterial egoki bezain eraginkorrak sortzea.
- Euskaltegira hurbiltzen den ikasleari ibilbide sendoa, azkarra eta eraginkorra eskaintzea.
- Ikas-prozesua aztertzeke adierazleen sistema estandar bat abian jartzea.
- Lan-munduari dagokionez, esparru berriek administrazioaren arloan (osasunean, justizian, enpresa publikoetan...) nahiz pribatuan (enpresetan, profesionalen elkargoetan...) sortuko duten eskaerari era eraginkorrean erantzutea.
- Irakasleen etengabeko prestakuntza sustatzea.
- Euskalduntze-alfabetatzearen eta erabilera sozialaren arteko zubiak eraikitzea ●



Araceli Díaz de Lezana

Euskarazko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKTak)

Euskarak garapen teknolinguistikoa behar du. Tren hori hartzen ez duten hizkuntzek ez dute etorkizunik izango. Argi dago merkatuak horrelako produktuak eskatuko dituela eta dauden hizkuntzan kontsumituko dituela. Hemen, estrategia litzateke lehentasunak ezartzea, betiere, kontuan izanda gure merkatuan etorkizun hurbilean sartuko diren produktuak. Beraz, helburua litzateke produktu horiek euskaraz ere eskuragarri izatea. Arlo batzuk jorratu dira eta jorratzen ari dira baina lanean jarraitu beharko da.

Araceli Díaz de Lezanan idatzitako artikulu osoa eta *Hizkunea* Soziolinguistikako Agerkariko aurreko artikuluak eta, argitalpen eta azterlanei buruzko berriak www.euskara.euskadi.net/berripapera web gunean irakur ditzakezue.




Argitalpenak



Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko irizpideak. IV. Plangintzaldia (2008-2012)

Eusko Jaurlaritzak, Kultura Saila



Llengua i societat als territoris de parla catalana a l'inici del segle XXI

Querol, E., (koord.)



Azterlana

Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa eta Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia II Saila

HIZNET ikerketa lanak

Maria Jesus Aranguren, Udaberria euskaltegiko zuzendaria eta irakaslea

"Ogibide bihurtu zen irakasle izatea"

Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik jaso zuen oroigarria, helduen euskalduntze-alfabetatzean 25 urtez jardun duen etarikoa delako, alegia, euskaltegietan euskara-eskolak ematen mende laurdena egin duelako. Berak kontatu digu laburrean historia luzea.



Maria Jesus Aranguren beste bi sariturekin.

HABE sortu baino lehen hasi ziren eskolak ematen.

1976an hasi nintzen Gasteizen gau-eskoletan. Elizetan eta ikastetxeetan, iluntzetan elkartzen ginen ikasleak eta

irakasleak. Orduan egoitza berezirik ez genuen eta euskara ikasi nahi zutenak hurbiltzen zitzaizkigun. Irakasleak ez ginen gasteiztarrak (azpeitiarra da bera) hara bizitzera joandakoak baizik. Eskolak gaez ematen genituen eta egunez beste lan bat egiten genuen, asko eskoletako irakasle ziren.

HABE sortu zenean nola aldatu ziren gauzak?

Diru-laguntzak iritsi ziren. Irakasleak gizarte-segurantzaren izaten hasi ziren eta ikastoletan zebiltzan irakasle batzuk euskaltegietara pasa ziren. Ogibide bihurtu zen. Ikasleen perfila zabalagoa zen: hezkun-

tza-alorrean sartu nahi zutenak genituen ikasle, baita administrazioan lana errazago aurkitu nahi zutenak ere. Gurasoak ere animatzen hasi ziren, haurrak ikastoletan baitzituzten, eta azkenik, betikoak zeuden, besterik gabe euskara ikasi nahi zutenak.

Orain nola deskribatuko zenuke zuen euskaltegiko egoera?


Bost motatako ikasleak ditugu: besterik gabe ikasteagatik datozenak, gutxienak; unibertsitatean joan aurretik tituluren bat lortu nahi dutenak; gurasoak; aisialdiko monitoreak eta administrazioan lanean ari direnak edo egin nahi dutenak.

Bi gauza nabarmenduko nituzke ikasleen ikuspegitik. Batetik, euskara egiaztagiria homologatu dira eta bestetik, bere kabuz ikastera datorrenari titulua lortu ahala matrikuletan gastatutakoaren zati bat itzultzen zaio. Euskaltegien ikuspegitik, irakaskuntza arautuarekin berdindu nahian gabiltza. Irakasleak falta zaizkigu hezkuntza arautuan soldata hobeak dituztelako. Hori aldatzea da gure nahia ●



EAEko euskararen belaunez belauneko transmisioa

Ikerketak hizkuntzaren eta bereziki familia bidezko euskararen transmisioa aztertzea du xede, EAEko gurasoengandik seme-alabenganako transmisioa, hain zuzen. Horretarako, 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuan jasotako informazioa abiaburutzat hartu da eta, HPSk landutako diseinu bati jarraituz, EUSTATEk propio egindako ustiapen bati esker burutu da. Azterketarako aukeratutako unibertsoa bi gurasoekin bizi diren 2 eta 29 urte bitarteko seme-alabek osatzen dute. Beraz, analisiaren oinarriko unitateak seme-alabak dira, 462.593 gazte, guztira. Unibertsoren mugak EUSTATEkin adostuta ezarri dira. Argitalpena dagoeneko ikusgai dago www.euskara.euskadi.net helbidean ●



Euskarazko hedabideen kontsumoa


Berriki, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskarazko hedabideen kontsumoa sustatzea helburu duen telebista-iragarki baten zabalkundeari ekin dio ETBn. Iragarki hori, iaz, urte sasoi bertsuan zabalduko iragarkia-aren segida da. HPSren ekimen hori ez da bakana, izan ere bi laguntza-deialdi garrantzitsuren osagarria da. Honako hauena hain zuzen ere: euskarazko hedabideak indartu eta sendotze aldera egindako laguntza-deialdiarena (Hedabideak deialdia), eta hedabide horietan hobekuntza-azterketak egitea helburu duten egitasmoen zuzenduriko deialdiarena (HEHOBA deialdia) ●



HEHOBA laguntzak

Euskarazko hedabideak indartu eta sendotze aldera emandako diru-laguntzen haritik, berriki, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hobekuntza-azterketak (HEHOBA deialdia) egitea helburu duten euskarazko hedabideei emandako laguntzak esleitu ditu.

Honatx horiek: *Karkara* aldizkariaren irakurleen azterketa (15.000 €); *Barren* aldizkariaren irakurleen azterketa (15.000 €); *Prest* eta *Berton* aldizkariak Bilbora zabaltzeko azterketa (15.000 €); Goiena multimedia enpresaren talde komertzialaren antolamendua eta lan ildo berrien azterketa (15.000 €); *Euskonews&Media* aldizkariaren hobekuntza-azterketa, marketineko ikuspegi batetik (15.000 €); *Elhuyar Zientzia eta Teknika* aldizkariaren merkatu potentziala, helburuko publiko berriak eta ekintza-plana definitzea (9.338 €) ●



Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktu-fitxategian sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saila / Zerbitzu Zuzendaritza / Donostia kalea 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) Tel.: 945 01 81 16 • berripapera@ej-gv.es

